

3.8.2. UDAL-ALORRAK. GIZARTE-EKINTZA. ZERBITZU ES-PEZIALIZATUAK.

GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programa 183 laguneko talde batek –kontrataturako pertsonek, arduradunek, lantaldeetako arduradun eta ofizialek eta talde teknikoak– osatua da 2017an, eta bederatzi lantaldeetan jarduten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketa eta atezaintza, ibaiak zein mintegia mantentzeko lanak, jostaketa eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia eta koadernaketa eta serigrafia.

Programa udal-dinamikan finkaturik dago, bai gizarte-bazterketa egoeran dauden hiriko pertsonak kontratatzeari dagokionez, bai Udaleko alorrek eskaturako zeregin eta lanei dagokienez. 2017an, udal gizarte-zerbitzuetatik bideraturako 152 pertsonak (ia 86 lanaldi oso) lan-kontrata lortu dute programa honen bitartez.

Honako lan hauek egin ziren nagusiki:

- Gizarte-lantokiko lantaldeak 36.000 lanaldi inguru banatu zituen.
- Konponketa eta lan txikiak ikastetxe eta ikastolan.
- Ibai eta mintegietako lantaldeak kastoreen erasoaren aurreko babesgarriak jartzea Argi ibaian, eta ertz-mugak Galaxiako Lorategian.
- Gizarte Enplegu Babestuko langileentzako ia 500 uniforme egitea, ia 600 jantzi Etxez Etxeko Laguntzako Udal Talderako, 74 adur-zapi haur-eskoletarako eta gailuak jostea Udaltzaingoa uniformean, ebaketa eta jantzigintzako lantaldeen aldetik.
- Serigrafia eta azaleztatze lantaldeak 1.000 agendatik gora egitea udal-zerbitzuetarako, genero-indarkeriaren aurkako 15.000 gida baino gehiago egitea eta Iruñeko liburu publikoetarako 220 liburu konpontzea.
- Tapizeriako lantaldeak ekipamendua hobetzeko lan egin du adinekoen udal-apartamentuetan, haur-eskolan eta lantegi-eskolan; horrez gain, Plaza de la Cruz BHIko ekitaldi-areto 381 berrabiarazi eta Iruñeko Orfeoirako 106 aulki berri amaitu zituen.
- Obren eta pinturako lantaldeak honako hauetan aritu ziren lanean: gizarte-larrialdiko etxebizitzetan, Migrosako errefuxiatuentzako etxebizitza komunitarioan, adinekoentzako udal-apartamentuetan, haur-eskolan eta etxabeetan, arloaren eskariei erantzunez.
- Soldadurako lantaldeak bizikletak aparkatzeko 60 euskarri, intsektuen kontrako 28 tranpa eta Turismo Bulegoko ateak egin zituen.
- Garbiketa/atezaintzako lantaldeak, udal-bulegoak eta -lokalak edo gizarte-egoera zaila duten edo genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak hartzeko apartamentuak ohi bezala garbitzeko gain, oinezkoentzako hiriko turismo-seinaleak zein beste etxebizitza eta erabilera askoko espazio batzuk ere garbitu zituen.

EMAKUMEENDAKO UDAL LAGUNTZA-ZERBITZUA

2017an, 595 pertsonak jaso zuten laguntza; haietatik, 300 berriak izan dira (289 emakume eta 11 gizonezko). Gainerako 295ek aurreko urteetan irekitako espedienteak zuten. Horiei dagokie-nez, banako 2.023 artatze egin dira, eta horietatik 29 larrialdikoak izan dira.

ARTATUTAKO KASU BERRIEN TIPOLOGIA

Tipologia	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Genero-indarkeria	131	-	131
Aholkularitza biktimen familiari eta inguruneari	4	2	6
Amek pairatutako indarkeriak eragindako seme-alabak	2	1	3
Maitasun-harremanetako desorekak	15	0	15
Hautura-prozesuetako zailtasunak	61	5	66
Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan	25	3	28
Prostituzioa uztea	31	0	31
Gizarte-zailtasuneko egoera	56	0	56
Bestelakoak	13	1	14
Daturik gabe	4	0	4
Diagnosiak, guztira	377	12	389
Espedienteak, guztira	289	11	300

HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK

Udal-programa espezializatu honek arreta ematen die familian babesgabetasun moderatuko egoerak dituzten Iruñeko haur eta nerabeei, bai eta norbere buruarekin, gizartean eta eskolan ez moldatzeko sintoma larriak dituzten haur eta gazteei (18 urte arte), horren ondorioz delitu-jokabideak garatzeko arrisku adierazgarria dutenei, alegia. 2017an, 136 familia eta 245 adingabe artatu zituzten.

HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA TALDEKO ESPEDIENTE AKTIBOEN BANAKETA, 2017AN, ERREFERENTZIAKO AUZO-UNITATEAREN ARABERA (%)

Auzoa	2016. urtea	2017. urtea
Buztintxuri	3%	4%
Alde Zaharra	6%	5%
Zabalgunea	9%	12%
Ermitagaña	7%	7%
Etxabakoitz	3%	3%
Iturrama	3%	3%
Mendillorri-Erripagaña	18%	15%
Milagrosa-Azpilagaña	13%	14%
Arrotxapea	13%	9%
Sanduzelai	9%	9%
Donibane	4%	7%
Txantrea	15%	13%
GUZTIRA	100%	100%

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

2017an, 1.207 pertsonak parte hartu dute Iruñeko Udaleko lanerako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia hau da: Iruñean zailtasun erantsiren bat duten pertsonen lanerako sarbidea sustatzea, pertsona horiek gizarteratu eta lanera daitezen lortzeko, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz, eta lanbide-kualifikazioa erdiets dezaten.

Programa	Parte-hartzaileen kopurua
Hargintza eta Biltegiatzea ELE eta Igeltserotza ELE (Landabeneko Prestakuntza Zentroa) – 2017ko ekainetik 2018ko azarora	30
Lorezaintza ELE (Arantzadi Prestakuntza Zentroa) – 2017ko ekainetik 2018ko azarora	15
Soldadura PEPI (Arantzadi Prestakuntza Zentroa) – 2016ko ekainetik 2017ko maiatzera	20
Enplegurako prestakuntzako udal-programa: Arotzeria eta Altzarigintza (Landaben Prestakuntza Zentroa) – 2017ko martxotik 2018ko martxora	15

Programa	Parte-hartzaileen kopurua
Lorezaintza, soldadura eta iturgintzako prestakuntza-programa (Arantzadi Prestakuntza Zentroa) – 2016ko azarotik 2017ko maiatzera	42
Mendekotasuneko prestakuntza-programa (Errotazar Prestakuntza Zentroa) – (2016ko urritik 2017ko martxora)	15
Mendekotasuneko prestakuntza-programa (Errotazar Prestakuntza Zentroa) (2017ko abendutik 2018ko ekainera)	15
GLT-GLBZ	683
Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak	19
Langabeendako Ikastaroak	77
Emakumeen espetxeko prestakuntza-ekintzak	67
GUZTIRA	998

	2013	2014	2015	2016	2017
Enpleguko Lantegi Eskolak eta PEPlak	174	117	117	75	65
Guk finantzaturako prestakuntza-programak				57	87
GLT-GLBZ	551	660	836	968	683
Espetxeko Prestakuntza-ikastaroak eta Lantegiak	116	113	116	90	144
Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak	22	21	19	17	19
Onuradunak, guztira	863	911	1.088	1.207	998

ENPLEGURAKO LANTEGI ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Enplegurako Lantegi Eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, eta Iruñeko Udalak eta Europako Gizarte Funtsak sustatzen dituzte, finantzaketan laguntzeaz gain. Ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegua

IZENA	ESPEZIALITATEAK	PROFILA	LEKU-KOPURUA
Landaben Prestakuntza Zentroa	Hargintza eta Biltegiatzea ELE	16-30 urte bitarteko gazteak	15
	Eraikinak zaharberritzeko igeltserotza ELE		15
	Arotzeria eta Altzarigintzako prestakuntza-programa	Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	15
Arantzadi Prestakuntza Zentroa	Lorezaintza, soldadura eta iturgintza	Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	42
	Lorezaintza ELE	16-30 urte bitarteko gazteak	15
	Soldadura PEPI	Kotizaziopekoak ez diren errentak jasotzen dituzten langabetuak, desgaitasuna dutenak...	20
Errotazar Prestakuntza Zentroa	Mendekotasuneko prestakuntza-programa	Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsonak	30

GIZARTERATZE ETA LANERATZE TALDEA (GLT)

2017. urtean Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 683 espediente aktiborekin lan egin zuen, eta horietatik % 25 alta berriei dagozkie. Horietatik, % 43 emakumezkoei dagozkie, eta % 57, gizonezkoei. Eta artatutako pertsonen ia % 64 migratzaileak dira; Estatuko pertsonak, haie-re, % 36ra igo dira. Talde horren barruan Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua ere (GLBZ) badago; hautatze-prozesuak egiten ditu, urtean zehar eta zenbait postutarako, GLTa-ren erabiltzaileak kontratatzeke. Guztira 236 lan-eskaintza jaso ditu zuzenean 358 plazarako. Eskaintza horien ondorioz 175 laneratze izan dira, eta eskaintako lanpostuen % 48,88 estali dira batez beste.

INTERES OROKORREKO ETA GIZARTE INTERESEKO LANAK

Udalak langabetuak zuzenean ere kontratatzen ditu interes orokorreko edo gizarte-interesekeo lanak egiteko (Nafarroako Gobernuaren toki-erakundeendako diru-laguntzen deialdiaren ba-rruan). Helburua da langabeak kontratatzea, eta, horrela, haien enplegarritasuna hobetzea,

dlanerako gaitasunak emanaz. 2017an diruz lagundu ziren bi proiektuak gauzatzeko, 19 pertsona kontratatu zituzten lehentasunezkotzat jotako kolektiboen artean (30 urtetik beherakoak, 50etik gorakoak, langabezian luzez daudenak, desgaitasuna dutenak, etab.). Pertsona horien bitartez, Errotazarreko etxabea, «Garbitegiak» deitutako aldean, egokitzeko lanek aurrera jarraitzen dute, udal gizarte-zerbitzuak handitzeko, eta seinale horizontalak eta nekazaritzako jarduera lagungarriak mantentzeko zerbitzuari berrekin zaio, Elkarkiderekin elkarlanean.

LANGABEENDAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduerak egiten ditu, langabeak lehenetsita, pertsona horien laneratzea lortu nahian. 2017an, guztira 77 pertsonak parte hartu dute 1. eta 2. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria lortzera bideratutako bost ikastaroetako batean (edo helburu horretara bideratutako moduluetan).

Espezialitatea	Ordu kopurua	Hasiera eta amaierako data	Prof. Ziurtag. Maila	Leku kopurua
Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ guztira)	210	02/01etik 04/04ra	1	15
Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ guztira)	210	04/10etik 06/21era	1	17
Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ guztira)	210	08/16tik 10/13ra	2	15
Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ guztira)	210	10/11tik 12/15era	1	15
Mendeko pertsonentzako laguntza soziosanitarioa gizarte-erakundeetan (moduluak)	70	09/05etik 09/29ra	2	15
GUZTIRA	910			77

LANTEGIAK ESPETXEKO EMAKUMEEN MODULUAN

2017an, Iruñeko Udalak prestakuntza-ekintzak antolatu, koordinatu eta finantzatu zituen Iruñeko Espetxeke emakumeen modulan. 67 emakumek parte hartu dute lantegietan, martxotik abendura bitartean; guztira 245 ordu eskaini dira urtean.

ESPEZIALITATEA	Egunak	Ordu kopurua	Hasierako data Bukaerako data	Parte-hartzaileak
I. Moda eta jantzigintzako lantegia	29	72,5	03/01etik 06/29ra	17
II. Moda eta jantzigintzako lantegia	19	47,5	09/04tik 12/21era	15
I. Eskulan-lantegia	27	67,5	03/21etik 07/04ra	17
II. Eskulan-lantegia	23	57,5	09/27tik 12/22ra	18
GUZTIRA		245		15

BAZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

ETXERIK GABEKO PERTSONAK ARTATZEKO ZENTROA. 2017an, zentroan 1.976 pertsona artatu dituzte (ibiltariak, erroldatuak eta hotzaren aurkako protokoloagatik). Artatutako pertsonetako askok programa batean baino gehiagotan parte hartzen dute; horregatik, artatutako pertsona ezberdinen kopurua txikixeagoa da: 1.726. Horietatik, 186 baino ez dira emakumeak (% 10,77).

2017an, 151 gautan aktibatu da hotzaren aurkako protokoloa; iazkoaren antzeko kopurua, beraz.

Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa	2014	2015	2016	2017
Ibiltariak	1.524	1615	1.359	1.478
Erroldatutakoak	65	64	65	72
Arreta, kalean	127	141	137	176
Hotzaren aurkakoa	479	206	275	250
GUZTIRA	2.445	2.026	1.834	1.976
Autobus-txartelak	1.020	1005	977	872

OSCUS 0,50 UDAL-JANTOKIA. Iruñeko Udalaren udal-jantokia Nabarrerria kaleko 31n dago, eta aurrean 247 erabiltzaile artatu dira. Erabiltzailearen profilak ezaugarri hauek ditu: gizonak (% 65,59 gizonak dira, eta % 34,41, emakumeak), espainiarra (% 50,66) eta ezkongabea (% 30,77). Artatutako helduen % 42,41ek ez dute inolako prestaziorik jasotzen administrazioaren eskutik, eta ia % 82 hirian erroldatuta daude. Erabiltzaileak 25 nazionalitatekoak dira. % 55,87 Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea dute. Zenbait nazionalitate aipatuta, jatorri espainiarreko 125 lagunez gain (% 50,66), jantokian izaten dira, besteak beste, 18 marokoar, 8 ekuadortar, 7 nigeriar eta 7 errumaniar. 2017an, 36.374 zerbitzu eman ziren (13.758 bazkari, 11.436 afari eta 11.180 gosari). Abenduan eman zen gosari, bazkari eta afari gehien, eta uztailan gutxien.

PRESTAZIOEN BESTE UDAL-DEIALDI BATZUK ETA SINATUTAKO HITZARMENAK

DIRU-LAGUNTZAK, IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA ELKARTEENDAKO

- Gizarte Ekintza. Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 48 proiektu lagundu ditu: 30 proiektu (desgaitasuna eta mendekotasuna) eta 18 (gizarteratzea). Deialdiak, guztira, 290.000 euroko aurrekontua du.

- Komunitate arloko prebentzio- eta sustapen-proiektuak, haurren eta gazteen aisialdiaren eta denbora librearen esparruan. Udalak 5 proiektu diruz laguntzen ditu, 45.000 euroekin guztira.

HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- Nafarroako Elikagai Bankua fundazioa. Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobreziako egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz hornitua dago.

- CERMIN – Nafarroako Elbarrituen Ordezkarien Batzordea. 15.000 euroko diru-laguntza jaso dute desgaitasunaren gaineko informazio, aholkularitza, prestakuntza, sentsibilizazio eta koordinaziozko programak eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuak.

- Gobernuz Kanpoko Erakundearen Koordinakundea. 36.000 euroko diru-laguntza jaso du Garapenerako Lankidetzako informazio- eta koordinazio-programak, Nafarroan lan egiten duten erakundeek beraiek eginda.

- Sekretariado Gitano fundazioa. 30.000 euroko diru-laguntza jaso du ijitoen etniako familiekin garatu beharreko esku-hartze proiektu batek, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetzeta eta gizarteratzeko zailtasunak zein haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko.

BANAKAKO ETA NORGEHIAGOKO UDAL DIRU-LAGUNTZAK

Prestazioak	2013	2014	2015	2016	2017
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	306.176	382.319	393.836	652.179	586.221
Eskola-jantokiak	580.000	495.000	402.137	567.977	778.138
Familia ugarien eskola-jantokiak	91.000	-----	-----	----- ---	-----
Alokairuak: Provivienda	170.000		361.223	366.554	379.348
Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan	36.000	36.000	26.161	58.608	55.149
Adingabeen arreta (0-12)	40.000	40.000	8.660	4.017	9.264
Gizarte-ekintzako erakundeetarako diru-laguntzak, haur eta gazteendako aisia eta denbora librea barne, 2015era arte	290.000		290.000	290.000	290.000
Haur eta nerabeen prebentzioa eta sustapena, aisialdi eta denbora libreko jardueren bitartez	-----	-----	-----	45.000	45.000
Taxi-bonua	140.000		115.823	141.621	144.872
Guztira	1.653.176				